



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotiza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
F0144708b01b1a1329b07ea20e030b33w

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

IRAGARKIA

2026ko ekitaldirako aurrekontu orokorra egitaratzeko udal araudiaren III. eranskinen honako hau azaltzen da:

BARRUNDIAKO ADMINISTRAZIO BATZARREN GASTUEN FINANTZAKETARI BURUZKO EKARPENAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK.

LEHENENGOA.- XEDEA.

Oinarri hauen xedea da Barrundiako udalerriko administrazio batzarren finantzaketaren araubide juridiko orokorra arautzea.

BIGARRENA.- DEFINIZIOAK.

Finantzaketa da, oinarri hauen eraginetarako, udalak toki administrazio horiei egiten dizkien ekarpenak, haien eskumeneko esparruan jarduerak egiteak dakartzkien gastu arruntei aurre egiten laguntzeko.

HIRUGARRENA.- ONURADUNAK.

Administrazio batzar hauek izango dira onuradunak: Audikana, Dallo, Elgea, Etura, Etxabarri Urtupiña, Gebara, Heredia, Hermua, Larrea, Marieta-Larrantzar, Maturana, Mendixur eta Ozaeta.

LAUGARRENA.-ONURADUNEN BETEBEHARRAK.

Onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:

- 1.- Toki erakundearen gobernu organoak legez eraturak egon behar dute.
- 2.- Administrazio batzar bakoitzaren errejidore lehendakariak edo hark izendatzen duen pertsonak Barrundiako Udaleko idazkaritzan aurkeztu beharko du, hurrengo urteko irailaren 30a baino lehen, administrazio batzarren kontuen balantze orokorra, ekitaldi bakoitzeko sarrera eta gastuekin.
- 3.- Onuradunek men egin beharko diote Udalak egin dezakeen finantza egiaztatze eta kontrol orori.

BOSGARRENA.- UDALAREN BETEHARRAK.

Udalak betebeharrak hauek izango ditu:

- 1.- Udalak urtero jarri beharko du bere aurrekontuetan partida bat transferentzia arrunt gisa, erakunde horiek oinarri hauetan ezarritako moduan egiten dituzten gastuak finantzatzeko laguntzeko.
- 2.- Udalak ekarpen bakarrean egingo ditu transferentziak, ekitaldi bakoitzeko abenduaren 30a baino lehen, baldin eta erakundeek bete badituzte oinarri hauetan adierazitako betebeharrak.

SEIGARRENA.- FINANTZAKETA IRIZPIDEAK.

Finantzaketa arau honen arabera burutuko da:

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	26/03/2026 12:14



BENETAKO KOPIA, Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiazta dalekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegoitza.araba.eus/barrundia/validacionDoc/?entidad=BARRUNDIA>
F0144708b01b1a1329b07ea20e030b33w

BARRUNDIAKO Udala
(ARABA)



Ayuntamiento de BARRUNDIA
(ÁLAVA)

- 1.- Urteko aurrekontuko partidatik, % 50a administrazio batzarrentzat era berdinean zatikatuko da.
- 2.- Urteko aurrekontuko partidatik, %25a aurrekontuzko ekitaldiaren urtarilaren 1eko herri bakoitzean dauden biztanleen arabera banatuko da.
- 3.- Urteko aurrekontuko partidatik, %25a 2026ko ekitaldiko hiri ondasun izaera duen OHZko erroldan dauden etxebizitzaren zenbaketa arabera banatuko da.

ZAZPIGARRENA.- BATERAGARRITASUNA BESTE DIRU SARRERA BATZUEKIN.

Oinarri hauetan ezarritako finantzaketa bateragarria da administrazio batzar bakoitzak dituen berezko diru sarrerekin, bai eta beste edozein entitate publiko zein pribatutatik jaso dezakeen beste edozein dirulaguntza edo sarrerarekin ere.

ZORTZIGARRENA.- ZEHAPENAK.

Oinarri hauetan ezarritako betebeharetakoren bat ez betetzeak urteko finantzaketa ez jasotzea ekarriko du.

Zehapena indarrean egongo da betebeharroriek bete arte.

Edonola ere, eragindako administrazio batzarrari egoztekoak diren arrazoiengatik transferentzia ez bada egiten abenduaren 31 baino lehen, hark galdu egingo du eskubidea dagokion ekitaldiko finantzaketa jasotzeko.

Denen ezagutzarako argitaratzen da.

ALKATEA,

Agiriaren sinatzailea: / Documento firmado por:	Kargua / Cargo:	Data / Fecha:
IGOR MEDINA ISASA (BARRUNDIAKO UDALA / AYUNTAMIENTO DE BARRUNDIA)	Alkatea / Alcalde	26/03/2026 12:14